

Santi Leone

Ihesaldiak

Zauria irizten zion Rafael García Serrano idazle falangistak Iruñeko Carlos III.a etorbidea egiteko Gaztelu Plazan erautsitako alderdiari. Hala deitzen dio behinik behin *Plaza del Castillo* eleberrian, eta bertan kontatzen du nola sartu ziren zauri hartarik, 1936ko uztailaren 18an, Nafarroa osoko boluntarioak, Jaungoikoaren eta Espainiaren alde odola emateko eta isurarazteko prest. Espainiako Gerla Zibila bukatu-rik, Eroritakoen Monumentua eraiki zuten etorbidearen bertze muturrean, 36ko uztailaren igande hartaz geroztik Francoren alde eroriak oroitzeko eta, apika, García Serranok aipaturiko zauri haren hesteko. Bidenabar, monumentuaren plazari Rodeznoko kondearen izena paratu zioten, ez leinu noble baten oroitzagarri, baizik eta titulu hura zeraman Tomás Domínguez Arévalo, gerra aitzi-
neko hondar egunetan karlistak Molaren aldera lerratzeke ezinbertzekoa izan zena, omentzeko.

Egunen batean, Iruñeko zenbait erai-
kinen sinbolismoa ikertu beharko litzate-
ke. Hiriaren gainetik, Apaiztegiko guru-
tze erraldoia dugu begira; Nafarroako
Unibertsitatean, El Escorial –Jaungoikoa
eta Inperioa– gogora dakarren eraikina.
Bien bitartean, beren modura irudikatu
zuten frankistek hiriko erdialdea: Gaztelu
Plazatik Eroritakoen Monumentura,
gerla hasierako boluntarioen biltokitik
gerla bukatu ondoko erorikoen atsed-
lekura, II. Errepublikako plaza irekitik
historia eta memoria hesten dituen monu-
mentura. Eta bakarra da han biltzen den
memoria: alde bateko boluntarioak, alde
bateko hildakoak, gerla abian jartzen
lagundu zuena eta gerlatik etekinak atera
zituena. Bertze edozein oroitzapen Iruñe-
ko bihotza den eremu horretatik kanpo
dago, bazterturik.

Aurtengo ekainaren 27an egindako
besta batean, Carlos III.a etorbidearen
bukaeran, Ezkabatik ihes egindakoak
omentzea proposatu zuten zenbait elkar-
tek. Ideia xoragarria. Haiek kaleratutako
manifestuan erraten denez, Ezkaban
ideologia guztietako presoak zeuden eta,
beraz, frankismoak zapalduriko guztiak



JOSU SANTESTEBA

gogoratu nahi dituzte izen aldaketa
horren bidez, ez soilik talde jakin bate-
nak. Baina, horretaz gainera, ihesaldia-
ren ideia da nire gustukoa, izan ere, pro-
posamenaren bultzatzaileak iheserako
ateak ireki nahian baitabilta Iruñeko
faxismoaren eremu sinbolikoaren mui-
nean, frankismoak memoria historikoa
hetsi uste zuen tokian, hain juxtu. Haien
eskutik, itzuri joaten saiatu zirenak itzuli
egin dira; memoriaren monopolioa da
eskapo doakiena orain oroitzapen ofizia-
len zaindariei.

Ekimena nik aipatuta, lagun batek
garrantzia kendu nahi izan zion, kontu
sinbolikoa baino ez zelakoan; ez duela
inportarik kale-izen batek edo bertzek.
Badu inporta, ordea. Franco hil eta 30
urte baino geroagoko ekimen horrek era-
kusten baitu ahanzturaren gainean eraiki-

Trantsizioan egindako urrats okerrekin posible egin dute frankismo zaleek gure artean lasai jarraitzea eta memoriaren ihesaldirik nahi ez dutenak agintean segitzea. Modu legalean, jakina. Edozein estakuru baliatuta

tako gizarte batean bizi garelara, nahita bul-
tzatutako eta iraunarazi nahi den
ahantzura baten gainean. Politikan ez da
frankismoaren aurkako adostasunik osa-
tzen saiatu; aitzitik, frankismoa eufemis-
moz estali dute, karriken izen frankistak
ez aldatzeko Iruñeko alkateak emandako
aitzakiek erakusten dutenez. Trantsizioan
egindako urrats okerrekin posible egin dute
frankismo zaleek gure artean lasai jarrai-
tzea eta memoriaren ihesaldirik nahi ez
dutenak agintean segitzea. Modu lega-
lean, jakina. Edozein estakuru baliatuta.
Ekainaren 27an, zer zigortu jakin ez, eta
udaltzainek Memoriaren Autobuseko
txoferrari jarri omen zioten isuna. Gaizki
aparkatzeagatik. ■